

Kirio Gastiarena

OINARRIAK TALDEKO KIDEA

■ 'Nafarron agerraldia euskararen alde' leloa duen manifestaldia gaur arratsaldeko seietan, Iruñeko Autobus Geltokitik, abiatuko da. Oinarriak taldeak antolatuta, euskara jasaten ari den egoera larria salatu nahi dute, 1990ean taldea sor-


tu zutenen üstetan ordutik hona egoera txartu baino ez delako egin. Kirio Gastiarena Oinarriak taldekoak dioenez, Gobernuak muzin egiten die gizartearen eskakizunei, «herritarren artean euskararen aldeko jarrera sumatzen delako». ■

«Euskarari hegoak mozten ari zaizkio»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

EGUNKARIA.— Gaurko manifestaldirako egin duzuen manifestuan azaltzen duzue duela lau urte Oinarriak taldearen sorrera eragin zuten arazoaren soluziobidean —Hizkuntz Politikako aurrekontuak, helduen eskalduntzea, NUPEko euskara politika, Administrazioa, komunikabideak— aurreratu beharrean atzeratu egin dela. Zein da zuen analisia atzerapen honi buruz?

KIRIO GASTIARENA.— Garbi dago egoerak ez duela hobera egin Oinarriak sortu zenetik hona. Arlo askotan atzeraka ari gara, naiz eta gizartearen jarrera euskararen aldekoa izan den. IKA eta AEKri dirua kentzen diete, Hizkuntz Politikaren aurrekontua murriztagaia da urte urte... Zer gertatu den? Nire ustez, trantsizioa hasi zenean, askatasunak ugaritu ziren, eta jendeak bazuen erabiltzeko aukera, baina gaur egungo Estatu honek gero eta murriztagaia egiten ditu askatasun horiek. Ondorioz, mugatzen ari dira euskara zabalteko aukera. Ez dakit oro har horrela den, baina guk ikusten duguna horixe da: euskarari hegala mozten ari zaizkio. Gizartearen euskara aurrera egiten ari da —gaur egun, hiru haurretik batek euskaraz egiten ditu lehen ikasketak—, baina Gobernu barruan



Bere ustez murriztagaia dira euskara zabalteko aukerak. LACALLE

kontrako jarrera dago nabarmen. **EGUNKARIA.**— Lau urte hauetan Oinarriak taldeak egindako lanaren balorazioa zer moduzkoa da?

GASTIARENA.— Oinarriak plataforma bat da eta talde bakoitzak lan egin izan du bere alorrean. Oinarriak-ek egin duena izan da talde hauek noizean be-

hin elkartu, eta denen artean arazo horiek konpotzen saiatu, ikuspegi global eta baikorrago batekin. Ez dakit lan handia egin duen, baina gutxienez koordinazio lana burutu da, eta momentu honetan nahiko ongi isladatzen da: talde bakoitzak egin duen lanaren ondotik, gaur egun erasoak oso gogorak izanik, plan-

gintza txiki bat egin dugu eta manifestaldi honekin hori frogatu nahi dugu.

EGUNKARIA.— Hauteskundeetan atarian lortu duzue beste urteetan ere lortu den alderdi politiko zenbaiten aldeko manifestua. Besteak —UPN, PSN, CDN— erakartzeko ahaleginik egin da?

GASTIARENA.— Ez dut esango beti ahalegin berbera egingo dugunik, baina oraingoan egin dugu. UPNk ezetza biribila eman digu, PSNk ez du aldeko keinurik agertu, eta zalantza izan dugu CDNk zer-nolako jarrera izango zukeen. Ez du manifestua sinatu, baina espero dugu aurrerantzean beste jarrera hobea bat agertzea. Oraingo ezin dugu hori papelean jarri.

EGUNKARIA.— Zerbait aldatuko da hauteskundeetan ondotik?

GASTIARENA.— Dauden aurrikuspenak ez dira onak gure alde azaldu diren alderdidentzako, beraz, ez dugu uste boto gehiago izango direnik Parlamentuan euskararen aldeko gaitzat. Nolanahi ere, negoziaketan ibiliko gara, eta CDN edo PSN barruan sartzen badira, zerbait ona lortuko litzateke.

EGUNKARIA.— Noiz arte egon beharko du Oinarriak taldeak aurreneko lerro horretan borrokan. Iraupen datarik paratu al duzue?

GASTIARENA.— Sortu zenean 23 puntu horietan oinarritu zen taldearen iraupena. 1990ean bi eraso gogor izan ziren: Irakasle Eskolan zegoen euskal adarra kendu zuten eta Euskalerrria eta Xorroxin irratiei ez zitzaizaien baimenik eman. Oinarriko 23 puntu horiek betetzen direnean seguraski taldeak agur esango du. Atzeraka goazen bitartean, hor egongo da.

Delinkuentzia tasa Donostian «oso txikia» da, Odon Elorzaren arabera

DONOSTIA

Odon Elorza Donostiako alkatearen arabera, hiri hau da «Espainiako Estatu hirien artean delinkuentzia tasarik txikiena duena». Alkateak Donostiako Udaltzaingoaren iazko memoriaren aurkezpenean egin zituen adierazpenok.

Udaltzaingoaren datuetan islatzen denez, iaz 999 atxiloteta egin zituzten, 1993an baino 228 gutxiago. Elorzaren irudiko atxiloteta kopuruaren jaitsieraren zergatia Ertzaintzak Drogaren Aurkako Unitate ordezkatu izana da.

Hiri segurtasunari dagokionez, denuntziarik gehien hiri erdigunean eta Parte Zaharrean egin ziren, denuntzia guztien % 45, hain zuzen ere. Gune horietan eginiko deliturik gehientsuenak, bestalde, lapurretak eta erasoak izan ziren.

Beste datu adierazgarri bat trafiko istripuen gutxitzeari dagokiona da. Elorzaren arabera, «beste urtebetetz trafiko istripuetan hildakoen kopurua % 55,5 jaitsi da aurreko urtearekin alderatuta; gainera, zaurituen kopurua ere % 20,7 gutxitu da».

Hala ere, eta nahiz eta istripuetan hil edota zauritutakoen kopurua jaitsi egin den, ezbeharren tasa 1993koaren parekoa da, seinaleak errespetatzen ez direlako, besteak beste.

Memorian jasotzen den beste puntu ilun bat alkoholari dagokiona da. Memorian islatzen denez, urte bakarrean % 61 handitu da alkoholemia probetan positibo eman duten gidarien kopurua. Elorzaren aburuz, faktore honek ere «zerikusi nabarmena» dauka istripuak murriztu ez izanarekin.

Udalerri euskaldunek beren eguna jai giroan ospatuko dute bihar Bermeon

G. A. / BILBO

Udalerri euskaldunek beren eguna ospatuko dute bihar Bizkaiko kostaldeko herri batean, Bermeon. Euskara hutsean bizitzea erabaki duten Euskal Udalerrien Eguna 'Euskalduna izatearen plazerra Bermeoko itsasaldetik Urdiango sakaneraino' lelopean ospatuko da.

Udalerri Euskaldunen V. Egun hau jai giroan ospatzeko ekitaldiz beteriko egitaraua prestatu dute biharko, hala nola, fanfarreak, pailazoak, baserri giroko azoka, erromeria, herri bazkaria, antzerkia eta abar.

Goizeko hamaika t'erdietan Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) aldeko ekitaldi instituzionala izango da.

Eta bertan, besteak beste, Bermeoko agintari, UEMAko partaide, instituzio publiko, herri mugimendu eta EAJ, EA eta HB alderdi politikoetako ordezkarriak izango dira.

Iñaki Arregi UEMAko koordinatzailearen arabera, «aurten go jaiaren leloak aipatzen duen euskaldun izatearen plazer hori lortzeko denon beharra da. Instituzioen laguntzarik gabe ezin baitaiteke holako gauza bat martxan jarri, baina are gutxiago herri mugimenduen aldetik laguntza eta partaidetza ez bada».

Juan Carlos Goienetxea alkateak eskerrak eman zizkion UEMAri Bermeo egun honetarako kokaleku aukeratu izanagatik. Bere hitzetan, «Bermeo betida-

nik izan da herri euskalduna, baina gaur egungo gaztelerazko modak euskararen erabilerari eraso dio. Benetako ahaleginak egiten ari gara herria euskalduntzeko eta jendea euskaraz bizi dadin».

«Euskara da», gehitu zuen, «guretzat, filosofiaz, gauzarik garrantzitsuena gure bizitzan eta eguneroko eginkizunetan, batez ere, Udaletik kanpora atera nahi duguna. Ez baitago Euskadirik euskararik gabe».

Begoña Bilbao Bermeoko Euskara teknikariak UEMA sartu izanaren garrantzia nabarmendu zuen; izan ere, «UEMA egoteak euskaraz bizitzera behartzen gaitu eta horrek asko lagunduko dio euskararen erabileraren berreskurapenari».

BELAUNTZAN

GURE TXOKOA

IGANDEA 29 Gaueko 21.30etan

"GUN"

KONTZERTUAN